

BEZERO SEGMENTUA

Gure bezero segmentua 16-65 urte arteko pertsonak dira. Urte tarte honetan hiru talde ezberdindu ahal ditugu.

16-18 urteen arteko taldea: bezero hauek interneten aritzeko gaitasun handia daukate baina ez daukate baliabide ekonomikorik gure zerbitzuak kontsumitzeko.



18-50 urteen arteko taldea: bezero talde hau gure diru-iturri handiena izatea espero dugu, interneten aritzeko gaitasuna eta baliabide ekonomiko nahikoak baitituzte gure zerbitzuak kontsumitzeko.



50-65 urteen arteko taldea: talde honetako bezero gehienek ez daukate interneten aritzeko ohitura handirik, baina baliabide ekonomikoak dituzte gure zerbitzuak kontsumitzeko.

Taberna edo jatetxeak egoera latz honetan laguntzea soilik helburu duten pertsonak ere, gure bezeroak izan daitezke. Talde espezifiko honetako bezeroek, gure zerbitzuei esker beren betiko taberna edo jatetxetan kontsumitu ahal izango dute erosotasun gehiagorekin, internet bidez eskatu ahal izango dituztelako aipatutako taberna zein jatetxe horietako produktuak.